[b]
BARREN
ELGOIBARKO ASTEKARIA
541. zkia.
XIII. urtea
2005eko irailaren 8a




## Elgoibartarrak oporretan

# Costa Rica, Karibeko perla

[ **KIROLA** ] ELGOIBARKO EHIZA TXAPELKETA • [ **KULTURA** ] JAIEN BALORAZIOA

# Udal Euskaltegira goaz. Bazatoz gurekin?

**Vamos al Euskaltegi Municipal, ¿te apuntas?**




UDAL EUSKALTEGIAK

www.udaleuskaltegiak.net

**DEBABE Udal Euskaltegien Mankomunitatea**
Nafarroa Enparantza 2 - ELGOIBAR
Tel.: 943 74 27 31
elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net
Ordutegia: 9:00-13:00 / 15:30-19:30

## 2005/2006 EUSKARA IKASTAROAK

**Euskalduntze maila guztiak. Alfabetatzea. EGA. Hizkuntz Eskakizunak.**
**Iraupena:** Iraila-ekaina. **Matrikulaldia:** Irailaren 1etik 23ra.
**Ikastaro bereziak:** Guraso. Enpresak. EGA ikastaroa larunbatetan. Mintzapraktika. Hizkuntza eskakizunak (Osakidetza, Administrazioa, Hezkuntza). AISA (etorkinentzako ikastaroak). Ostalaritza.
**Autoikaskuntza zerbitzua: BOGA (On-line).**
**HABEren 1go eta 2. mailako azterketak euskaltegian bertan.**
**16 urtetik gorakoentzat Beka Sistema. Galde ezazu!!!**

# "Gomendatzen dizut..."

# saria

Zure oporrak gomendatu nahi dizkiguzu?
Kontaiguzu zein den zure herri, hondartza, mendi, ostatu edo dena delako kuttuna eta sari bat irabaziko duzu!

Bidali mezu labur bat edo argazki bat testuarekin ***elg.gaztebulegoa@terra.es*** helbidera edo utzi zure gomendioa Gazte Bulegoan.
Partehartzaile guztien artean bi sari zozketatuko ditugu!

- 17 urtera artekoentzat: CD portatila MP3 sarrerarekin
- 18 urtetik gorakoentzat: Asteburua 2 pertsonentzat landetxe batean.

GOMENDIOAK AURKEZTEKO EPEA: irailak 30.
ZOZKETA: urriak 7.

gazte informazioa

Elgoibarko Gazte Bulegoa
Kultur Etxea, Nafarroa plaza
Tel.: 943 74 14 61
*elg.gaztebulegoa@terra.es*



# ZOZOAK BELEARI...



Amaia Gorrotxategi

Beleee!!

Bukatu direlaaa!!!

Goizeko 7:00etako (irailak 1) Mauxitxa Txarangako tronpeta hotsek ez didate odola bor-bor jarri, esnatu egin naute!!! 11:00etako Bilboko haizeak ez zuen independentzia usainik, ke usaina zuen!!

17:30etako "Amaia, hurrengo astian BARRENian zuek, ez?"-k ez dit ilusiorik egin, estresatu egin nau!!

Ai ama, Ainhoa!! Opor osteko sindromea ote??

Ulertuko duzun bezala, neuronak bi hilabetez inbernatzen egon ondoren oso zaila da bat batean esnatzea, beraz, nik ere abeslari onek bezala errekopilatorioa egingo dizut:

Ba, egia esan, festa girotik, oso berri txarrak.

Mozkor batek baino gehiagok esan dit, gure tartetxo honetako hitz bat bera ere ez duela ulertzen... (nik ere horixe esaten nion andereñoari etxeko lanak egiten ez nituenean) eta itxuraz mozkorturik ez zegoen batek Don Alfonso apaizaren sermoiak gure hitzak baino entretenigarriagoak zirela esan zidan!! Eta badakizu, zeuk esana da.... "los borrachos y los niños...."

Beharbada goiko argazkian bikinian agertzen bagara....

Zer diozu??

> **«Mauxitxaren tronpeta hotsek ez didate odola bor-bor jarri»**
>
> AMAIA

> **«Sindromearen terapiarako dirua San Bartolomek lapurtu dit»**
>
> AINHOA

Ainhoa Mendibil

Zozo!!!

Ezin zaitut animatu maitia.

Mauxitxak animatu baino esnatu egin zaituela diozu eta BARRENeko deiak estresatu.

Barkatuko digute txarangako gure lagunek baina jaietan euren papela horren ondo bete eta horrenbeste animatzea izango da akaso oraingo estresaren arrazoia. (Aupa zuek!!)

Ni ere sindromeak jota nabil aspaldian.

Ikasturte berria ate joka ikusten dut eta Txiki Egunean nire ondokoak zuen botakagurea baino handiagoa sentitzen dut Amaia. Baina alperrik da. Sindromearen terapiarako dirua San Bartolomek lapurtu dit orain bi aste beraz zela edo hala animatu beharko gara!

Beste gauza bat; mozkorraren kontua... gezurrik ez du esango akaso; baina ez gaitu bada horrek tristatuko ezta?

Ez duela ezer ulertzen? Beno, hurrengoan irakurri dezala irakurri beharrekoa mozkorra pasa ostean! (eta bixamunak bakean utzi duenean!)

Animo Amaia! (eta beste danori ere berdin!)

P.D. Bikiniarena ez zait batere gustatu. Garena erakusten hasi eta edozeinek isilduko bagintu bezala sentituko nintzateke! Bikinia zertarako?

Patxo 1 (bakoitzari).

> EGIA DAUKAGUN GAUZARIK BALIOTSUENA DA.
> EZ DEZAGUN GEHIEGI ERABILI.
>
> Mark Twain

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

## Mila esker denoi!

Madalako Jai Batzordea osatzen dugun talde eta erakundeok, eskerrik zintzoenak eman nahi dizkizuegu San Bartolome jaietan txosnetan parte hartu duzuen herritar guztioi. Eskerrik asko, bene-benetan, musu-truk lanean jardun duzuenoi; eskerrik asko, txosnetara trago bat hartu edo bokatak jatera arrimatu zareten guztioi; eta eskerrak, baita ere, antolatu ditugun jardueretan parte hartu duzuenoi. Madalako jai espazioak jaietaz disfrutatzeko beste aukera bat izan nahi du, eta pozgarria da zuek denok bertan ikustea.

Guri dagokigunez, oso gustura geratu gara Madalako jai gunean aurten izan dugun giroarekin. Akaso aurten ez da aurreko urteetan beste jende ibili Elgoibarko jaietan, baina txosnetan oso giro polita izan dugu. Gainera, eta hau ere garrantzitsua da, txosnetara hurreratu zaretenoi esker dirutxo bat ere atera dugu gure proiektuak finantzatzeko.

Beraz, mila esker berriz ere, eta seguru gaude datorren urtean ere leku berean topo egingo dugula. Bien bitartean, ondo bizi!

**MADALAKO JAI BATZORDEA**



## Oharra

Jasone Osorok BARRENeko zuzendari postua utzi du. Aurrerantzean ETB1eko Wazemank programan arituko da gidoilari lanetan. Gure artean eginiko lanagatik eskerrak eman eta bere lan berrian suerterik onena opa diogu.

## ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

**1.** Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
**2.** Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
**3.** Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
**4.** Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
**5.** Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

E-POSTA
**barren@elgoibarkoizarra.com**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia.**

[b]arren

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea PUBLIZITATEA Eider Iriondo MAKETATZAILEA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Uxue Alberdi, Mikel Cornejo, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Esther Gurrutxaga, Iban Urizar, Kokoe K.E., Urruzuno, Unai Villena, Alaitz Vives ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.360 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*



## KEXAK

• Emakume batek esan digunez, Madalako parkea kristalez beteta egoten da askotan: "Madalako parkean ume asko ibiltzen da jolasean, eta askotan lurrera erortzen dira. Lurra kristalez beteta egoten da, batez ere, astelehenetan, eta umeentzako oso arriskutsua da. Askotan gainera, kristalak hartu eta ahora eramaten dituzte. Asteburua pasatu ostean, Madalako parkea arreta handiagoarekin garbitzeko eskatuko nuke. Bestalde, zakarrontziak sarriago hustu beharko liratekeela uste dut. Gauza gozoak egoten dira, eta erlez beteta egoten dira. Umeei zakarrak zakarrontzira botatzen irakatsi nahi izaten diegu, baina hainbeste erlerekin beldurra ematen digu".

• Hainbat herritarrek esan digutenez, txurreria eta tiobiboak oso leku txarrean jarri dituzte aurtengo jaietan: "Udalak ez du asmatu aurtengo San Bartolomeetan txurreria eta haurrentzako tiobiboak jartzeko tokiarekin. Trenbide kalean aparkaleku mordoa kentzeaz gain, trafikoari kalte handia egin dio, eta haurrak ibilitzeko ez zen batere toki egokia. Jaietan honelako gauzak herriaren erdialdean egon behar dira, horrek ematen dio herriari festa giroa, ez dira herritik atera behar".



## TXALOAK

• Herritar batek Udala txalotu nahi du Elizako eskaileretan jarritako barandilengatik: "Jende nagusi ugari joaten da elizara, eta eskailerak jaisteko arazo ugari izaten dituzte. Barandilak jartzea oso ideia ona izan da".



Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 **ELGOIBAR**
☎ 943 74 41 12


LARRAÑAGA AUTOESKOLA
Tel: 943 74 10 11

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Zatoz informazio eske!



# URRUZUNOREN luma

## Fauna (I)

Austin-Texas; gauerdia. Nere gelarako eskilarak igotzen hasia nintzela bihotzak salto egin zidan. Han zegoen, ni baino lau maila gorago: "poasoia": hartz inurrijaleen muturra, mofeta begiak, arratoi ilea, buztan hezurtsu amaigabea. Atzera egin nuen estropozuka (*trankil...aldeingo'u*). Baina segunduak-minutu, poasoiak han ziharduen, gaua usaindu eta usaindu. "Alde, ostia!" esan nion hortz artetik, eta ondorioz poasoiak zuzen begiratu zidan (*ai-dios!*).

Hagin zorrotzak agerian jarri zituen. Burua apur bat beheratu zuen, ezkerreko begia erdi itxi, buztana tentetu. Ia ezin nuen txisturik irentsi. Halere, hankak ireki nituen, belaunak makurtu, begirada gogortu-edo. Astiro (*hang on, baby*), esku bat gerrira luzatu nuen. Haizeak bekokiko izerdia irristarazi zidan. Poltsikoko giltzik zorrotzenari heldu nion (*a muerte, Johnny*). Baina-ordurako-eskilaretan-behera-zetorren-arratoi-erraldoia-ziztu-bizian-

(*aah!!*)

-eta-nire albotik-pasa-ostean. Belarretan. Ezkutatu. Zen. Lurrean eseri nintzen arnasestuka. Poasoiak eskilaran lagatako gorotz meta sudurbistakoa zen.

***Jon Garate***

## [ ZORTZIKO TXIKIAN ]



### ARGIÑE RUBIO

MERKATU PLAZAKO TXILLARREKO SALTZAILEA

**• Noiz harrapatu zenuen azkenengo "atxurra"?**
Duela hiru egun hartu nuen, baina belarra mozteko. Bestelako atxurra aspaldi.

**• Zerk jartzen zaitu tomatea bezain gorri?**
Gauza askok, oso lotsatia naiz.

**• Zer da nekazaritza ekologikoa?**
Produktu kimikorik erabiltzen ez duena. Produktu garbiak eta kalitate handikoak dira, ez dute ingurugiroa kutsatzen, eta produktu transgenikorik erabiltzen ez duen bakarra da.

**• Produktu hauek garestiagoak al dira?**
Ez. Produktu batzuk bai, baina ohiko barazki eta fruituak ez dira garestiagoak. Labeldun barazkiak garestiagoak dira.

**• Entsalada on batean falta ezin den osagaia?**
Tomatea.

**• Inoiz jan duzun fruiturik exotikoena?**
Aguakatea da gehien gustatzen zaidana.

**• Begetarianoa ala orojalea da osasuntsuagoa?**
Begetarianoa. Nik oso haragi gutxi jaten dut, baina elikagaiak ondo uztartzen jakin behar da.

**• Sagardotegi begetariano batek izango al luke arrakastarik?**
Euskal Herrian ez, hemen haragi asko jaten da.

## komikia



# [AKORDATZEN NAIZ]



## JOSE MARI BETELU

1932an jaioa

## «Oporrak»

Lehen, oporretan Rioja aldera juteko ohittura haundixa zaguan, baiña ez zan gaur egunian daguan afana. Oiñ oporretan ez zuazela esatiak askotan lotsia ere ematen dizu. Ni ezkondu eta gero urten nitzan oporretan lehenengo aldiz.

Ez naban pentsatzen sekula Elgoibartik urtengo nitzanik. Oso elgoibartarra izan naiz, eta koadrillan Elgoibarko herrixari oso pegauta egon gera.

Andriak esaten zidan nunbaittera juteko, probia egitteko. Lagun batek tentauta jun giñan oporretara bi matrimonixo.

Horren aurretik, Jazinto, nere lagun bat, eta beste matrimonixo bat Lodosara jun giñan. Lagunak karneta atera berri, kotxe berrixa ekarritta, eta julixuan hamaseixan jun giñan.

Goizo urten giñan, Gasteiz trafiko haundirik gabe pasatzeko. Baiña gero euri pixkat hasi zan, eta kotxiak labaindu egitten zaban.

Maeztun, errebuelta baten kontrola galdu, eta zubi batetik behera errekara jausi giñan. Errekia baju zaguan, eta kotxia bere posiziuan geratu zan. Eskerrak! Bueltia eman baleu, ez dakitt zer pasauko zan. Ez jakun ezer pasau.

Kotxia gruak eruan zaban, eta gu, Opakua pasauta, Araiara jun giñan taxisian.



Handik aurrera, 35 urtian leku berera juten naiz oporretara. Leku politxa eta lasaixa da.

# [GURE BERBAK]

## Erderakadak

Beti esan izan da gure hizkeran eta ingurukuetan erderakada asko erabiltzeko joeria daukagula. Ahozko jardunian (eta erabillera informalian) behintzat nahiko normala da erderakadak erabiltzia. Gaurkuan gramatika gailu batzuk ekarri dittut hona, adiñeko hiztunen jardunetik jasotakuak. Datorren astian, erderakada gehixago ekarriko dittugu.

- *Zer bat, gar bat emate zaban handikan Gernika guztiak. Da handitxik pasau bihar genduan. Asike, sea lo ke sea, Gernika...*
- *Txitxarruan entzueria eukiko dozu, ezta? Txitxarruan taillarra. O sea, Azkoittiko karreteran, tren zubixan onduan.*
- *Ta eskerrak horreri oin kotxiak basarrixetara, ba ondo. Eske len, sasoe baten, medikuak eta ere basarri askotara ez zeben jun nahi izeten. Ta oin sikiera, kotxiakin juten zara, ta di-da ekarri.*
- *Umiak kalian, ba egunian erropa klase bat eruan bihar dabe. En kanbio, basarrixan bazabiz, ez.*
- *Umiak aldrebes etorri balira, batekiñ geratuko giñan, por ke guri kostau zitzakun hori, txikixa, neskia! Mutilla moduko hiru hobe zan neska bat baiño.*

*Jesus Mari Makazaga*

karkizano
San Frantzisko, 14 – Tel. 943 74 05 49

Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

URKIDI AHOLKULARITZA
KONTABILITATE
LAN
FISKAL
Kalamua, 12 · ELGOIBAR
Tel-Faxa: 943 74 18 91
ASEGURUAK

## ELGOIBARTARRAK OPORRETAN

# MENDIA ALA HONDARTZA?

*Oporretarako ez dago plan txarrik, norberari gehien gustatzen zaion plana aukeratzea da gakoa. Batzuk mendizaleak dira, besteek ordea, nahiago izan dute kostaldea udako oporrak pasatzeko. Bi aukera desberdin eta biak onak. Batetik, Mont Blanc mendia igo duten senar emazteak ekarri ditugu gure artera, eta bestetik, Costa Rican bi aste egin dituzten mutil koadrila. Dagoeneko bukatu dira oporrak, baina oroitzapenak ez dira ahazten. Ondorengo erreportajean bildu ditugu bi bidaia hauek. Ba al zatoz gurekin?*

### OPORRAK EUROPAKO GAILURREAN

Lurdes San Martin (46 urte) eta Manuel Ramos (49 urte) senar-emazteak Mont Blanc aukeratu zuten udako oporretarako. Munduko gailurrik ezagunenetarikoa, Alpeetako eta mendebaldeko Europako tontorrik garaiena da (4.810 m). Frantzia eta Italia artean dago eta Chamonix-etik (Frantziar aldetik) igo zuten, beraien alaba, honen mutil-lagun eta Mallabiko lagun batekin batera.



Iaz ere saiatu ziren Mont Blanc igotzen, baina ez zuten lortu. "Alaba mendizalea da oso eta mutil-lagunarekin joateko asmoa zuen. Kordadan bi lagun baino gehiago joatea hobe zela esanez animatu gintuen. Horrelakoei baiezkoa emateko ez dugu askorik behar". Eguraldiak ez laguntzeaz gain, altueretako gaitzak jo zuen Lurdes eta "Mont Blanc-en handitasunak kokildu gintuen". Berriz errepikatzeko asmorik ez zutela azaldu digute, baina arantzak moduan ez da atera arteko atsedenik izaten. Are gutxiago euskalduna eta mendizalea bazara. "Berriz ere alabak berotu gintuen. 'Orain edo inoiz ez', esan zigun eta gure adina ikusirik arrazoi zuela ondorioztatu genuen. Fisikoki eta mentalki ondo prestatu eta iaz baino mentalizatuago abiatu ginen".

### Lehen saiakera ustela

Lehen saiakera Laumilakoen Ibilbidea delakotik egin zuten. "Chamonixen teleferikoa hartu eta 3.800 metrotan dagoen Aiguile du Midiraino igo gintuen. 3.500 metrotara dagoen elurrezko lautada batean egin genuen lo kanpinean, Cosmiques-eko aterpetxetik gertu. Aklimatazioa egiteko Mont Blanc du Tacul (4.248m.) igo genuen lehenik. Tontorrerako erasoa, berriz, hurrengo egunean. Gauerdiko 1:00ak inguruan hasi ginen oinez eta Brenvako leporaino (4.303m.) iristea lortu genuen. Lainoa sartu eta haizea eta hotza jasanezinak zirenez, buelta eman behar izan genuen". Zortea ezinbestekoa da horrelako mendi eta garaieretan, batez ere, eguraldi ona aurkitzeko zortea.

### B plana

"Kanpinera itzuli ginen, datorren urtean berriz itzuli beharko ote ginen pentsatzen hasiak ginen. Ez neukan batere gogorik berriz saiatzeko, baina B planari ekitea erabaki genuen. Izan ere, lehen saiakerak huts eginez gero, Gouterreko aterpetxean (Mont Blanc igotzeko biderik erabiliena) 6 hilabete lehenagotik 5 leku gordeak nituen abuztuaren 16rako" azaldu digu Lurdesek. Zortea izan genuen. Abuztuaren 15ean eta 17an eguraldi oso txarra egin baitzuen, baina 16an egun zoragarria atera eta gailurra egitea lortu genuen". Gainetik pisu handi bat kendu zutela aitortu digute, "gailurrera iristea zoramena izan zen. Alpinistaz gainezka zegoen eta nahi baino denbora gutxiago egon ginen hotza zela-eta. Europako gailurrean baino Chamonixeko plazan geundela ematen zuen. Mundu guztiko jendearekin topo egiten duzu eta adin guztietakoak".

Bai Lurdes eta bai Manuel gustura itzuli dira bizitako esperientziarekin. "Alpeak ikaragarri politak dira. Dena da handia, superlatiboa; bailarak, mendiak, distantziak, nekea... Paisaiak eskaintzen duen ikuskizuna ere bai. Lainoen gainetik zaude, hegazkinak gure hankapean pasatzen ziren eta egunsentia eta ilunabarra hitzen bitartez azaltzeko zailak dira. Gauez 3.000 metro beherago dagoen Chamonix herriko argiak eta izarrak ikustea ere zoragarria da. Bestalde, elur gainean jarritako kanpinean lo egitea ere esperientzia bat da. Inurri bat moduan sentitzen zara handitasun horren aurrean. Hau guztiagatik itzuli ginen".









## Helmuga Costa Rica

Jabi Guallar, Aitor Zubiaurre, Aitor Sasiain, Asier Arizaga, Iñaki Laskurain, Iñigo Iparragirre, Ibai Gurrutxaga eta Aitzol Garmendia 3 edo 4 urte aritu dira lagun arteko bidaia bat egiteko dirua aurrezten. Bidaia egiteko momentua iritsi zenean helmuga erabaki behar zuten, eta ez zen erraza izan. Azkenean Costa Ricara joatea erabaki zuten: "Europatik irten eta beste kontinente bat ezagutzea nahi genuen. Gainera, Costa Rica txikia denez, 15 egunetan ikusteko aukera eskaintzen du".

## Over-booking

"Irten baino egun batzuk lehenago agentziatik deitu ziguten, hegazkinean lekurik ez zegoela esanez". Bidaia berbera 3 egunera egiteko aukera eskaini zieten, erdi prezioan: "Ez genuen lehenengoan baietzik esan, 3 egun galtzea asko iruditu zitzaigun, baina azkenean, diru aldetik oso ondo etorri zitzaigun eta onartu egin genuen". Bidaia ez zen ondo hasi. "Madrilera iristean hegaldia 9 orduko atzerapenarekin aterako zela esan ziguten eta aireportu ondoko lau izarretako hotel batetara eraman gintuzten. Gustura egon ginen, baina beste egun bat galdu genuen. Erreklamatu egin dugu eta ondo ateratzen bada hegaldiaren dirua itzuliko digute".

## Bi aste, hamaika leku

10 ordu inguru airean pasatu ostean Costa Ricako hiriburura iritsi ziren, San Josera. Astebete garraio publikoa erabiliz ibili ziren: "aukera ona da, merke dago eta toki askotara iritsi daiteke". 2. astean furgoneta bat alokatu zuten: "Autobusez iritsi ezin ginen tokietara joateko aukera eman digu". Denetarik ikusi dute: hondartzak, Parke Naturalak, sumendiak... Pazifiko aldeko hondartzak gehiago gustatu zaizkie. Turismoa egiteaz gain, rafting eta antzerako hainbat ekintza egin dituzte: "Ekintza hauek egiteko turistek askoz gehiago ordaindu behar dute, aprobetxatu egiten dira".

## Bizimodu lasaia

Badirudi "erritmo karibeñoa" existitzen dela: "Oso lasaiak dira, presarik gabe joan behar da toki guztietara. Bazkaltzeko eta afaltzeko 2 ordu behar dira gutxienez. Hango kamarereoak hemengo tabernetan ezingo lukete lanik egin". Orain han eurite garaia da eta egunero euria izan dute. Gaueko 12:00etarako oso nekatuta egoten zirela kontatu digute. Parrandarik ez dutela egin esan digute... sinistu egin beharko diegu!



## [ PROTAGONISTA ]



### NikaxiAndonegi

Jaiotzez mutrikuarra, abuztuaren 28an hil zen 89 urterekin Nikaxi. Irakasle izateko ikasketak burutu zituen bere herriko Marinel Eskolan, eta 1936an gerrara joan zen Batallon Loyolako gudariekin. Gerra ostean Eibarrera joan zen. Armagintza Eskolako irakasle zen bitartean Kimika ikasketak egin zituen. 1959an iritsi zen Elgoibarrera Sigmako eskolaren zuzendari izateko. 13 urtez jardun zuen lan honetan, eta makina bat herritarri eman zizkion eskolak. Ondoren enpresan jarraitu zuen lanean 1. mailako ofizial moduan, 1983an jubilatu zen arte.

## [ NOTIZIA ]

# Iraila amaierarako bukatuko dituzte tren geltokiko obrak

Ekainean hasi ziren Elgoibarko tren geltokiko obrak, eta TECSA enpresako arduradunak esan digunez, iraila bukaera alderako amaitzeko asmoa daukate.

**Lege berrietara egokitzeko**

Obra honen bidez tren geltokiko eraikina eta andenen zonaldea berrituko dira. Helburu nagusia Elgoibarko tren geltokia Eusko Tren enpresak atera dituen lege berrietara egokitzea da. Alde batetik, andenen altuera igo egingo da trenen atearen parean gelditzeko. Honetaz gain, lurrean marra horiak margotuko dira, erabiltzaileek nondik mugitu behar duten jakin dezaten. Bestalde, bidaiarien segurtasuna areagotzeko, ez labaintzeko



lurra jarriko da andenetan. Aldapak kenduko dira, argi indartsuagoa jarriko da eta jarleku berriak ipiniko dira.

Eraikin barnean egingo den berrikuntza aipagarriena sarrera lekuz aldatzea izango da. Aurrerantzean lehen iturria zegoen lekutik sartuko da geltokira.

## [ ZENBAKIA ]

**4.340**

Elgoibarko Udalaren web guneak 4.340 bisita izan ditu abuztuan, eta guztira 44.908 orrialde ikusi dira. Iazko abuztuan 1036 bisita izan zituen web gune honek, baina aurtengo San Bartolome jaiak egunez egun jarraitzeko proiektuari esker bisita kopurua laukoiztu egin da.

## asteko [ ARGAZKIA ]



1.410 gramoko tomatea jaso du Miren Lizarralde elgoibartarrak bere etxeko baratzean. Ermuaranbide kalean bizi da, eta etxe ondoan dauka ortua. Tomateak jasotzera joan zenean sekulako sorpresa hartu zuen. Ia kilo erdiko tomate gorri-gorria zeukan bere zain. Mirenek esan digunez, aurtengo udan tomate asko jaso dute, "baina hau bezalako ederra bat ere ez". Udako beroak eta ur faltak kalte handiak eragin ditu nekazal produktuetan, baina Mirenen etxean entsalada bikainak jan dituzte.

# 165 lagunek hartu zuten parte San Antolin jaietako bertso afarian



Iaz berreskuratu zituzten Arriaga auzoko bizilagunek San Antolin jaiak, eta aurtengoan egitaraua zabaldu dute. 13 baserri eta San Antolineko bizilagunek osatzen dute Arriaga auzoa, eta denen artean aspaldiko tradizioari eustea lortu dute. Ostiralean, irailaren 2an hasi eta asteburu osoa iraun dute jaiek aurtengoan. Bertara hurbildu direnek giro bikaina izan dela kontatu digute.

### 165 lagun bertso afarian

Jexus Mari Irazu eta Sustrai Kolinarekin bertso afaria izan zen ostiral gauean, eta 165 lagun hurbildu ziren bertara. Afal ostean, trikitilariek alaitu zuten gaua goizaldera arte.

Larunbatean herri kirol apustua izan zen protagonista nagusia. Hiru laguneko bi taldek hartu zuten parte, Apraizen taldea Arronaren taldearen aurka. Hiru proba egin behar izan zituzten: Korrika, sega lanak eta txingak eramatea. Azkenean Apraizen taldeak irabazi zuen. Honen ostean Herri Kirolen txanda izan zen, gauean afaria eta bukatzeko erromeria.

Jaiak oso ondo joan direla kontatu digute, eta bertan lortutako dirua auzorako izango da, helburua, auzotarrentzako lokal berria lortzea da.

## Bosniar gizon bat baserriz-baserri dabil iruzurrean 13 ume hona ekartzeko aitzakiarekin

San Lorentzo bailarako bizilagun batek deitu digu, baserriz-baserri diru eske dabilen bosniar gizon bat gezurretan dabilela esanez, eta kontuz ibiltzeko abisatuz. Dirudienez, Zestoako Udalak sinatu dizkion papelak aurkezten ditu bosniako gizon honek, papel faltsuak dira, eta 13 ume Euskal Herrira ekartzeko aitzakiaz dirua eskatzen du.

San Lorentzoko bizilagun honek susmo arraroa hartu zion gai honi, eta Zestoako Udalarekin harremanetan jarriko zela adierazi zion gizonari, eta kontatzen zuen istorioa benetakoa bazen, berak ere dirua emango ziola.

Telefonoa hartzeko astirik ere ez zuen izan, bosniar gizonak bat-batean alde egin zuen. Emakumeak Zestoako udaletxera deitu zuen, eta han istorio honi buruz ezer ez zekitela esan zioten.

Jakin dugunez, bosniar hau bera Arriaga auzoko baserrietan ere ibili zen eskean, eta jende askok eman zion dirua.

Honelako kasuetan kontu handiz ibili behar da, eta inori ezer eman aurretik istorioak egiaztatzea komeni da.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Miski taldeak 6000 euro inguru bildu ditu

Kanpainaren lehenengo fasean 5.953 euro bildu ditu Miski Taldeak. Udalak 600 euro eman ditu, kolaboratzaile anonimo batek beste 600, eta gainontzekoa rifekin lortu da. Zenbaki irabazleak: 1.166, 2.403, 2.754, 4.700, 3.025, 3.938, 2.202, 4.110, 3.605, 409, 4.684, 2.702, 3.136, 2.468, 251, 3.243, 165. Urrian kanpainaren bigarren fasea hasiko da.

### San Lorentzoko zozketa

San Lorentzo jaietan egindako zozketan 68.749 zenbakia izan da sariduna. Ordezkoa, 57.683. Irabazleak txahala edo 1.200 euro jasoko ditu.

### Txankakuaren zozketa

Txankakua Merkatari Elkarteak Nazioarteko Folklore jaialdian eginiko zozketako irabazleak ondorengoak dira: 5 euroko sarreretan 267 (ordezkoa 325) eta 184 (ordezkoa 070). 3 euroko sarreretan 1076 (ordezkoa 1100) eta 1220 (ordezkoa 1155). Txankakua dendetan gastatzeko 60 euroko txekea jasoko du bakoitzak. Saria jasotzeko epea irailaren 16an bukatuko da.

### Merkatu Plazako zozketa

Merkatu Plazako dendariek bi hilabetetako zozketa egin dute, eta 60 euroko sei txeke banatu dituzte. Irabazleak Pakita Olivas, Nerea Urrutia, Lorea Gorostiza, Josefa Astigarraga eta Itziar Etxeberria izan dira. Saria erosketa txeketan jasoko dute.



Katrina urakanak 10.000 hildako inguru laga ditu.

# Zer begitandu zaizu New Orleansen izan den hondamendia?

**ROSARIO ANDONEGI**
Jubilatua
61 urte



“Nahiz eta herrialde aberatsa izan berandu ibili dira eta kalteak sekulakoak izan dira. Kaltetuenak pobreak izan dira, eta lehenbailehen eman beharko diete laguntza.”

**ENKAR CID**
Etxekoandrea
41 urte



“Jendea toki guztietan jendea da, eta pena handia izan da, baina beharbada honek herria esnatuko du eta zein motatako gobernua daukaten konturatuko dira.”

**LUIS BERDONCES**
Jubilatua
68 urte



“Gobernua ilargian egon da eta oso berandu erreakzionatu du. Kanpotik datorren laguntza onartu beharko luke gosez eta egarriz hiltzen ari direnei laguntzeko.”

**Mª CECILIA MARA**
Ostalaria
50 urte



“Dauzkaten baliabideak kontuan izanik ez litzateke horrelakorik gertatu behar. Naturaren aurka ez dago zereginik, baina kalteak txikiagoak izan ahal ziren.”

# [ BAI ala EZ? ]

Datorren asterako....

Hiru langiletik batek opor osteko depresioa jasaten du

## Izan al duzu opor osteko depresiorik?

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) **ERANTZUNA**

**7744** zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.

Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

## JAIOTAKOAK



**Eneko Calomarde Caceres**
[Uztailak 10]
Manuel eta Sofia



**Ruben Barriga Madera**
[Uztailak 27]
Francisco de Borja eta Eva



**Nerea Torquemada Gurrutxaga**
[Uztailak 29]
F. Javier eta Ane



**Aitor Burunza Gil**
[Abuztuak 3]
Iñaki eta Itziar



**Irati Elgeta Arreitunandia**
[Abuztuak 7]
Iakes eta Ainhoa



**Markel Mugika Azpeleta**
[Abuztuak 13]
Josu eta Isabel



**Iker Izagirre Arriola**
[Abuztuak 13]
Iñaki eta Pilar



**Malen Arriaga Moreno**
[Abuztuak 18]
Eli eta Igor



**Unax Olabe Ibarlucea**
[Abuztuak 19]
Jose Agustin eta Miriam

**Ane Santolaya Rodriguez**
[Uztailak 2]
Luis F. eta Eva

**Unax Garitano Gonzalez**
[Uztailak 8]
Igor eta Susana

**Ibai Rodriguez Ibañez**
[Uztailak 17]
Javier eta Ainara

**Loinatz Lizundia Vazquez**
[Abuztuak 4]
Pablo eta Sonia

**Danel Tinoco Guillen**
[Abuztuak 19]
Benjamin eta Maria

**Aimar Almortza Arrillaga**
[Uztailak 7]
Manuel eta Soledad

**Iker Astigarraga Rodriguez**
[Uztailak 12]
F. Javier eta Idoia

**Lore Arregi Cabezon**
[Uztailak 22]
Asier eta Mª Luisa

**Iker Fernandez Pinacho**
[Abuztuak 19]
Oscar eta Sandra

## HILDAKOAK

Manuela Zabala• [ 83 urte ] • Uztailak 1
Alejandro Iriondo• [ 74 urte ] • Uztailak 6
Jose Mari Altuna• [ 58 urte ] • Uztailak 12
Ignacio Iriondo• [ 81 urte ] • Uztailak 17
Maria Oteiza• [ 83 urte ] • Uztailak 19
Miren Altuna• [ 80 urte ] • Uztailak 25
Jose Arriola• [ 85 urte ] • Uztailak 26
Martina Juaristi• [ 84 urte ] • Uztailak 27
Juanita Arriola• [ 84 urte ] • Uztailak 22
Antonio Lago• [ 74 urte ] • Abuztuak 3
Belen Barrutia• [ 69 urte ] • Abuztuak 6
Teodora Aldazabal• [ 84 urte ] • Abuztuak 7
Agustin Garitagoitia• [ 80 urte ] • Abuztuak 8
Teodora Etxarri• [ 58 urte ] • Abuztuak 8
Eugenio Gorosabel• [ 83urte ] • Abuztuak 25
Iñaki Beristain• [ 68 urte ] • Abuztuak 26
Nikaxi Andonegi • [ 89 urte ] • Abuztuak 28

## EZKONTZAK

Angel Gurrutxaga eta Raquel Perez [ Uztailak 9 ]
F. Javier Correa eta Alazne Zubiaurre [ Uztailak 16 ]
Miguel A. Perez eta Silvia Gonzalez [ Uztailak 23 ]
Alberto garcia eta Eva Palacios [ Uztailak 30 ]
Migel A. Galindo eta Nerea Muguerza [ Abuztuak 6 ]

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira 943 74 41 12 telefonora edo bidali e-postaz barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.


ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

*TANATORIOA*



*KUTXAK*
*TRASLADOAK*
*KOROAK*

NORBANAKOEI eta KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako erietxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01

# Look aldaketa

## Haritz Garcia




"Haritz Garciaren (19 urte) ama ileapaintzailea da eta beti berak moztu izan dio ilea gaur arte. Denerako dago lehen aldi bat, ordea, eta BARRENekoak agertu behar etxe barruko ohitura polit hau eteteko. Ilea luze xamar eramateko ohitura duela ere aitortu digu Haritzek, baina oraingoan Fadek ileapaindegiko profesionalen eskuetan laga du bere buruaren itxura estetikoa. Are gehiago, zintzo-zintzo jarraitu ditu hauen gomendioak eta iradokizunak. Amak gertutik jarraitu ditu aldaketa guztiak, ileapaindegian bertan lan egiten baitu. Azkenean denak gustura emaitzarekin. Zer iruditzen itxura aldaketa hau?




## prozesua... Fadek ileapaindegian



Ile luzea duela-eta, ile mozketa "apurtua" eta "desestrukturatua" egin diola azaldu digu ileapaintzaileak. "Ile asko kendu arren luzea duela dirudi".



"Haritzi bizar gutxi hasten zaionez, ez dauka patilak lantzeko adina lehengairik. Hortaz, patilen gainean ilea luze laga diogu. Perilatxo bat ere egin diogu".



"Buruaren goikaldean ilea luzetxoago laga diogu eta gandor modukoa egin; olatu baten itxuran, alde batera begira edo jausia".

Zure itxura DOAN aldatu nahi al duzu? Jarri gurekin harremanetan: **barren@elgoibarkoizarra.com**

# biluzik
## sexologia txokoa



Eli Moreno [Sexologoa]

## Udako ligeak

***Gai honetan ni ez naiz aditua, baina nire eguneroko bizipenek gazteekin zertxobait erakusten didate eta eguneroko errealitate honetan oinarrituko naiz gai honi erantzuteko.***

Badirudi udan ligeak eta harremanak gehitu egiten direla, gehienok sentsazio hori izaten dugu eta seguraski egia izango da. Garai honetan jai giroa nagusitu egiten da, ikasketak eta lana amaitu dira, eguzkia eta argitasuna handiagoa da eta erlajatuagoak gaude, denbora gehiago izaten dugu guretzako eta gustatzen zaizkigun gauzei eskaintzeko. Honez gain, jende askok esaten duen bezala jaietan gehiago ligatzen da, tragoxka batzuek laguntzen baitute, lotsa gutxiago eta bazile gehiago, deshinibizio gehiago. Zorionez halako momentuak ederrak dira, pena horren gutxi izatea!

